2017ko apirila 170. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

EZ AHAZTEKO HISTORIA
EUSKAL ESTATUAREN GEROA ERABAKITZERA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa

barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

ITXASPE TABERNA
T 943 504 420
Nagusia, 8 - 20808 Getaria

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA 17
☎ 14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA-KAIAPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

21 Fotoerreportajea: Korrika

22-25 Erreportajea: memoria historikoa

4-5	Zuen txokoa
6	Elan Euskadi
7	Eskubide Sozialen Karta
8	Toponimia
9	Historiaren katebegiak
10	Harritarten txutxupeka
11	Urritza Aisialdi Taldea
12	Inglix pitinglix
13	Getariako hitza eta Txikiegia agian
15	Petriletik ikusmiran
16-17	Salberak Itsaskabrari
18-20	Erreportajea: maiatzaren 7ko galdeketa
21	Fotoerreportajea: Korrika
22-25	Erreportajea: memoria historikoa
26	Agenda

2017ko apirila 170. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Anuska Esnaola, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritzi, gutun, argazki, zorion-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitara ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpenak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

Arrantzaleei aipamena

Duela urte batzuk, gaua antxoa harrapatzen ibili eta gero itsasontzia lehorrerantz abiatzen zenean, sukaldariak bi kazuela antxoa edukitzen zituen prest ontziko lanak bukatzean gosaltzeko. Era honetan, ez zen garai hartako itsasontzi txikietako sukaldea kolapsatzen korrika eta presaka bakoitzak bere janaria prestatzeko. Kazuela bat piperrautsarekin eta bestea piperrautsik gabe, hori izaten zen behintzat "geurean". Hamaika aldiz jandakoak gera hil berri den Rufino Isastik era horretan prestatutakoak.

Atzeko kubiertan jaten zen, jeneralean neberako tapa gainean, euskaldun legean, geure era zaharrean: ogia esku batean eta kutxiloa bestean, kolpea beti nor bere aldera eta pauso bat atzera. Ardo satoa ere ez zen faltako jira bueltan.

Bitartean, ontzia moilarantz abiadura bizian; bi, hiru, lau edo behar ziren orduak —arrain lekuaren arabera—. Porturako milia bat falta zenean, tinbrea jo, arrain muestrak neberatik igo eta dena prest moilara sartu eta arrainak ateratzeko. Dena presaka, berriz arrain tokira bueltatzeko lehenbailehen.

Antxoa garaian murgilduta gaude orain, eta lanerako bueltan errepidetik ikusten ditut hauen joan-etorriak. Hori dela eta, berriro ere gogora etorri zaizkit egun horiek; nahiz eta egia den badirela pare bat urte kontu honi bueltaka nabilela.

Badira sei urte Getariako arrantzaleen kofradiak maiatzeko lehendabiziko astebukaera aukeratzen duela hain preziatua den arrain honi gorazarre ekitaldia antolatzeko. Urtero aukeratzen dituzte bat, bi edo hiru omendu zilarrezko antxoarekin saritzeko. Buruan dauzkat zerrenda horretan azaltzen diren aukeratuak: jatetxe ospetsuetako sukaldariak, kontserbagileak, arrain saltzaileak, politikariak, txakolingileak, kofradietako batzorde buruak, eta beste lanbide desberdinetako ordezkariak.

Ez dut zalantzan jarriko nork edo zeinek merezi duen aipamen hau, baina erabat sinestezina iruditzen zait hainbeste urteren ondoren inork gogoan ez izatea kate honetako lehen maila, arrantzalea. Arrantzalea esaten dudanean eskifaiaren partaide guztiak izendatu nahi ditut: porturantz doan itsasontziaren burdinazko bihotza zaintzen duen makinista, gauerdian txalupara arrainak biltzera saltatzen duena, neberakoak, sukaldeko lanak egiten dituztenak, gosaria bukatu eta garai batean ontziak garbitzen gelditzen zen txalupa-mutila, muestrekin bentara joaten dena, patroia, edota hemen kalitatezko arraina portura ekartzeko sistema berrien gosean erbestera

Argazkiak Getariako Nuevo Caximironan ateratakoak dira. Lehen aipatu legez, gosaritan herriko bandan, aurreko mendeko 80garren hamarkadan; itsasontzia lehorrerantz.

han lana nola egiten den ikastera joandako armadorea. Hitz batean, barruko jende erabat ahaztua, inork, orain arte, inoiz izena jarri ez diena, eta beren lan isilik gabe, beste guztiak —ez lehengo urteko oroituak ezta aurreragokoak ere— existitu ere egingo ez ziratekeenak.

Tomas Otamendi

2017ko kuotak

Bazkideok:

Ekainaren hasieran jasoko dugu Artzape Euskara Elkartearen urteko bazkidetzaren kuota.

Horregatik, azken urtean zuen bankuko datuetan aldaketarik izan bada, eskertuko genizueke maiatzaren amaiera baino lehen jakinaraztea. Horretarako **943 000 548** telefono zenbakira deitu edo **artzape@topagunea.com** helbide elektronikora idatz dezakezue.

Iaz bezala, 25 eurokoa izango da kuota aldizkaria Getarian jasotzen dutenentzat eta 30 eurokoa, berriz, herritik kanpo jasotzen dutenentzat.

Beste urtebetez, eskerrik asko gurekin jarraitzeagatik eta proiektuari emandako babesagatik.

Artzape Euskara Elkartea

ZAINTZA

FULDAIN FARMAZIA

Maiatzaren 15etik 21era

EGUNAK

elan euskadi
ONGD - GGKE

Remedios Amaya: getariar ijitoa

Ijito, buhame, calo, gitano, romani, zíngaro, rom, sinti... makina izen Indiatik duela bost mende penintsulara etorri zen etnia honentzat. Bost mende eta egokitzen oraindik; kanpotarrak oraindik, nahiz eta "paperak" izan. Inoiz ez zitzaien ongi etorririk egin, bai zera! Errege-erregina Katolikoek Espainiaren batasun politiko-kultural-erlijiosoa ezarri zuten, eta kalbarioak jarraitu zuen ijitoentzat... orain arte.

Gure haurtzaroan Getariara ere etortzen ziren patriarkak gidatutako karroetan; mandoa aurretik eta txakurra atzetik, alboetan emazte eta seme-alaba nagusienak oinez. Iturritxikin hartzen zuten atseden. Ura, bertako iturritik; argia eta berotasuna, suaren inguruan kantari...

1983. urtean Iturritxikin zeudenek ez zuten Eurovisionen Remedios Amaya andre ijito gaztea ikusi *¿Quién maneja mi barca?* abesten; gainontzeko getariarrok bai, baita Katukaleko katuek ere. Garai hartan kate bakarra zegoen —TVE—, ez zegoen ordenagailurik, ez eta mugikorrik ere. Jende andana biltzen zen kaxa magikoaren inguruan lehiaketa txuri beltzean ikusteko. Egun haietan zabaldu zen herrian Remedios Amaya ijitoa GETARIARRA zela, Iturritxikin jaiotakoa, alajaina; makina bat testigu omen zeudela; udaletxean hala ziotela... eta denok kaxa hipnotizatzaileari begira, getariar ijitoak nola abesten zuen ikusten. Oinutsik agertu zen gainera —*mal fario*, bere hitzetan—, Munichen (Alemania ez-batua).

Ez zuen bozka bat bera ere jaso; ez zen gehiago bere getariartasunarena aipatu. Orduz geroztik, getariar denok ados, katuak barne: María Dolores Amaya Vega andrea Trianan jaiotakoa da, 1962an.

Denbora da ijitorik ez dudala ikusi Iturritxikin. Noizbehinka aurkitu izan dut bide bazterrean furgonetaren bat, eta familia osoak algekin *curelo*an —lanean—.

Ijitoen egoeraren berri jakin nahian Fundación Secretariado Gitano (FSG) erakundeak kazetarientzako egindako gida praktiko bat irakurri dut. Hala dio:

- Ijitoak dira gutxiengo etnikorik jendetsuena, gazteak dira eta erdiak andaluziarrak.
- Buhameen %83k 15 urte baino gehiago daramatza auzo berean bizitzen, nomada izateari utzita.
- Langabezia tasa handiagoa dute.
- Emakumeen %23,2 ez da sekula ginekologoarengana joan.
- Hezkuntza maila txikia dute.
- Azken bost urteotan, 668 diskriminazio-kasu erregistratu dira; hauetatik 188 hedabideek eragindakoak. Gorantz omen doa, gainera.
- Bizi-itxaropen txikiagoa dute.

Bost mende eta oraindik horrela!

Gaur egun, Remedios Amaya andrea flamenko-kantari errespetatua da; oso harro dago bere etniaz. Idatzi hau irakurtzen badu, jakin dezala ELANen hurrengo jardunaldietara gonbidatua dagoela.

Disde yescotría! (Ikusi arte!).

Eskubide sozialen defentsan, DSBE/RGI defendatu

Idatzi hau otsaileko kolaborazioan airean uzten genuen galdera bati erantzunez hasiko dugu. Galdera hark, lankideak greban/borrokan zeuden bitartean lanera joan ohi diren "langileen" kontzientziei egiten zien erreferentzia. Tolosaldeko enpresa hartako grebalariek borrokaren bitartez lortutako lan baldintza berriei uko egitera iritsiko al ziren langile haiek? Baita zera ere, dena poltsikora! Hau da, grebarik/borrokarik/mobilizaziorik egin ez eta hilero 120€ gehiago irabaziko dituzte, urtean 11 lan-ordu gutxiago, kontziliaziorako eskubidea —eta enpresaren betebeharra—... Aurpegia behar da gero!

Eskubide sozialen defentsari eutsita, apirilaren 1ean Bilbon, Eusko Jaurlaritzak prestazio sozialetan eman dituen atzera-pausoak salatu eta eskaera zehatza egitera irten ginen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen dugun eragileok.

Hauek dira DSBE/RGI laguntzaren inguruan Jaurlaritzak hartu berri dituen erabakiak:

Bejondeizuela! Irabazi duzue! Ideiak garbi izanda, langile batasuna mantenduta eta herritarren konplizitate eta babesarekin dena da posible. Zuen garaipenak gizarte justuago bat eraikitzen lagunduko du. Aurrera!

- 2012az geroztik zorroztu ziren baldintzak bere horretan uztea.
- 2012az geroztik mantentzen duen %7ko murrizketari bere horretan eustea.
- DSBE/RGIari gutxieneko soldataren igoera —legeak agintzan duena— ez aplikatzea. Hau da, %8a igo ordez, %1,5 bakarrik gehitu dio.

Emandako datuok Getarian, otsaileko Lanbideren datuak kontuan izanda, 36 pertsonei eragingo die zuzen-zuzenean. Hau da, Getariako pertsonarik behartsuenek —kasu, diru-sarrerarik ez dutenek, langabetu eta langabezia sari mota guztiak agortuta dituzten heldu zein gazteek, lanean egon arren soldata prekarioak dituztenek— hilero gutxi gorabehera 50€ gutxiagorekin atera beharko dute bizitza aurrera.

Guk, getariar hauengatik eta EAEko 130.000 herritarrengatik, zera exijitu diogu Eusko Jaurlaritzari:

- 2008an onartutako legea betetzea eta beraz,
  - Amaitzea 2012tik mantentzen duen %7ko murrizketarekin.
  - Gehitzea DSBE/RGIn ere Gutxieneko Soldatan eman den %8ko igoera.
- Horiei guztiei hilero dagozkien 110 bat euroak bueltatzen hastea.

Amaitzeko, aipatu, herritarrok gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatuak izatea gizarte-borrokaren emaitza dela; gizarte entitate ezberdinek eta herritarrek bultzaturiko Herri Ekimen Legegile (ILP) baten ondorioz sortua, herriarengandik herritarrentzako. Gizarte eskubideen alde, KALERA!

Idazlea
ANDRES ALBERDI

IZARRI

Kokagunea: argazkian garbi ikusten den bezala, San Anton mendiaren iparraldean lehorretik zenbait metrora dagoen haitza da, handiagoa edo txikiagoa ageri ohi dena marearen arabera.

Izena: ez da beti **Izarri** izenez ageri mapetan eta erreferentzietan. Batzuetan, **Izarraitz** izenez ageri da, baina Izarri dirudi dela jatorrizkoa.

Esanahia: *itsas harri*, *itsasoko harri* (***iz-*** aurrizkia + ***(h)arri*** izena).

Euskal hitz zahar askotan ageri den elementua da hasierako IZ hori (batzuetan ITZ/ITS formez ere ageri dena). Jakintsuek (Resurreccion Mª Azkue izan zen hori aipatzen lehena) diote IZ erro hori preindoeuroparra dela (erromatarren garaikoa baino askoz lehenagokoa, alegia) eta *ura/itsasoa* esan nahi duela. Europako izen zahar askotan ere ageri da, betiere ur/itsaso/ibai hitzen adiera-esanahiarekin. Euskal hitz arrunt askotan eta euskal toponimian ere sarri ageri da adiera horrekin (ur/itsaso):

- Hitz arruntetan: *izotz*, *izerdi*, *izokin*, *izkira*, *itsaso*, *iztoki*, *istin*…
- Toponimian: *Izaro* uhartea (Bermeo), *Izpazter* herria (Lekeitio ondoan), *Itziar*, *Itzurun* hondartza (Zumaia), *Izpegi* mendia (Baigorri-Baztan artean dagoena eta nondik itsasoa ikusten den)…

  Toponimo hauen esanahia antzematen batzuetan ez da erraza (Itziar?, Itzurun?), baina beste batzuetan nahiko probableak dira esanahiak: *uharte* edo *isla*ren sinonimoa da *izaro*; *izpazter* (itsas bazter); *izpegi* (itsas begi)…

Isarria izena 1897ko mapan. /Arg.: Antxon Aguirre Sorondoren *Getaria* liburutik.

Izarri haitza.

Bada Getarian bertan elementu horrekin zerikusia izan dezakeen beste izen bat ere: ***Izustarri***, Zumaia aldera, Orroaga eta Aizpurupe parajeen erdian dagoen lurmuturtxo biribiltxoa. Esanahi problematikoa du (goitik begiratuta, *itsas uztarri*?).

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

DESAMORTIZAZIOA

Zorra. Jakina da egungo gizartean zor publikoak edozein politika gidatzeko duen pisua erabakigarria dela. Atzera begiratuz gero, bat azkar konturatu daiteke historiako pasarte asko ere baldintzatu dituela.

Herri-zorra denboran zehar oso presente egon den moduan, hau gutxitzeko era ezberdin eta ugariak erabili izan ditu estatuak. Horren adibide argia izan zen desamortizazioa. Prozesu horren pasarte bat jasota dago Udalaren artxiboan, azken zatiarena, Madozen desamortizazioarena alegia.

1855ean atera zen argitara Desamortizazioaren Lege Nagusia, Pascual Madoz Ogasun Ministroaren eskutik. Honen arabera, eliz ondasunak eta udal lurrak salgai jarri behar ziren. Hala eta guztiz ere, salbuespenez betetako legea izan zen Gipuzkoaren kasuan —baita gainerako euskal probintzien kasuan ere—, foru aldundien eta udalen aurkakotasuna zela eta. Getariako kasuan, udalbatzarretako aktek argi erakusten dute aipaturiko kontrakotasun hori.

1856ko maiatzaren 7ko batzarreko aktan Udalari atentzioa deitzen zaiola aipatzen da, desamortizazio legeari lotutako ondasun zerrenda ez aurkeztearen ondorioz. Ez da ahaztu behar 1836an Getariako udal artxiboa erretzearen ondorioz mota honetako erroldak desagertu egin zirela. Hori dela eta, Probintziako Gobernadore Zibilak, ofizio baten bidez, hiru eguneko epean ondasunen zerrenda egin eta aurkezteko agindu zion Udalari.

Hiru egunak ondo luzatu ziren. Aipaturiko zerrenda hiru urte beranduago egin zela islatzen digu 1859ko abuztuaren 1eko udalbatzarreko aktak. Ondorengo ondasunek osatzen zuten zerrenda:

- Udaletxea. Hasieratik argi uzten zen besterenezina zela, herriak eraikin honen beharra baitzeukan.
- Portuko etxola. Hau ere besterenezina zen, 1875. urtera arte baitzegoen alokatuta. 8.000 errealeko balioa zeukan, urteko 160 errealeko errenta emanez. Saltzekotan arrantzaleen gremioari akzioak eta etekinak bermatu behar zitzaizkion.
- San Anton mendia. Urteko 400 errealeko etekinak ematen zituen.
- San Anton mendiko bost etxola, arrantzarako materialen deposito modura erabiltzen zirenak. Udal lurretan eraikita egon arren, jabetza pribatukoak zirenez, hauek ere besterenezinak ziren.
- San Anton gaztelua. Guda garaietan soldadu-taldeez okupatuta egon ohi zen. Funtzioa ikusita, hau ere besterenezina izango litzateke.

Zerrendaren arabera, San Anton mendia zen salgai jar zitekeen udal ondasun bakarra.

1859ko udal ondasunen zerrendaren arabera, San Anton mendia bakarrik saldu zitekeen. /Getariako Udala

Artikutzara irteera

Martxoaren 23tik 24ra Artikutzara joan ginen bi egun pasatzera. Goizean, autobusa hartu eta Artikutzara abiatu ginen; *Go!azen* filma ikusi eta abesten joan ginen denok, gustura.

Ordubete pasa ondoren, Artikutzako guarda-etxera iritsi ginen. Bertan, bi monitore zeuden gure zain. Monitoreek taldeka jarri gintuzten eta pista jolasa egin genuen basoan zehar Artikutzara iritsi arte, geldialdi eta azalpen desberdinak emanez.

Arratsaldean, bertako erreka aztertu genuen. Aztertzen ari ginen bitartean, jolasten egon ginen errekan. Gauean bi taldetan banatu ginen, eta oheak prestatu eta pijamak jantzi ondoren, pijamen desfilea eta kantu saio ederra egin genituen. Jarraian, denak neka-neka eginda, lotara joan ginen.

Hurrengo egunean, herrian zehar altxorraren bila ibili ondoren, bazkaldu eta Getariarantz abiatu ginen.

Neke handiarekin, baina gustura ibilita bueltatu ginen.

Txiki Txokoa eta udaleku irekiak

Kaixo irakurleok:

Uda iristear dago eta Urritza Aisialdi Elkarteko begiraleak prestaketekin hasita gaude. Udaleku irekiez gain, aurten berrikuntza batekin gatorkizue: Txiki Txokoa.

Txiki Txokoa, 2014an jaiotako haurrei —Haur Hezkuntzako 2. mailakoak— eskainitako aisialdi aukera da. Izan ere, iaz adin honetako haurrak udalekuetan hartzeko proposamenak jaso genituenez, aurten talde berri hau sortzea erabaki dugu. Udaleku irekiak ere izango ditugu aurten, ideia eta ekintza berriz beteta. Azken hauek 2013. urtetik aurrera jaiotakoei eskainiko dizkiegu.

Txiki Txokoa eta udaleku irekien inguruko bilera maiatzaren 11n izango da, arratsaldeko 18:30ean, udaletxeko pleno aretoan.

Aurtengo beste berrikuntzetako bat izena emateko epean egongo da. Epe mugatua egongo da horretarako: maiatzaren 15etik 19ra bitartekoa. Nabarmendu nahi dugu epe horretatik kanpo ez dugula izen-ematerik onartuko, iaz gai honen inguruan izan genituen arazo batzuk direla eta. Aipatu, bileren aurretik Iturzaeta Herri Eskolatik pasako garela orriak banatzera; kaleetan kartelak eta sare sozialetan informazioa ere jarriko ditugu.

Bi urtetan oso gustura aritu gara lanean udaleku irekietan eta aurten ere horrela izango delakoan gaude. Gainera, talde berri bat sortuko dugunez, Urritza handitzen doa! Ideia berri asko ditugu udarako eta ekintza pila batekin, ziur gaude gustura igaroko dugula uztaila. Beraz, badakizue, Urritza Aisialdi Elkartea zuen zain dago!

Animatu gurekin Txiki Txoko eta udaleku irekietara!

UXOA IRIGOIEN

"*The best and most beautiful things in the world cannot be seen or even touched*"

"Munduko gauzarik ederrenak eta hoberenak ezin dira ez ikusi ezta ukitu ere. Bihotzarekin sentitu behar dira", Helen Keller

Aspalditxoan etengabe entzun izan dugu geroz eta gizarte materialistagoan bizi garela, objektu materialei garrantzia handia ematen diegula, baita jabetzari ere: **nire** etxea, **nire** autoa, **nire** arropa, **nire** mutil-laguna... Zorionez, hezkuntzan —zein beste arloetan— sentimenduen garrantzia goraipatzen duen mugimendua nagusitzen ari da. Esaterako, haurren sentimenduei arreta jartzea beharrezkoa da, edukiak ikasteaz baino harago, pertsona gisa hezten eta hazten ari direlako. Sentimenduen mundua anitza da eta denok lasai adierazi beharko genuke gure alaitasuna, tristura, haserrea, urduritasuna... *FEEL IT AND EXPRESS IT!* (Sentitu eta adierazi!).

Vocabulary

ENGLISH	PRONUNCIATION	EUSKARA
Feelings	filins	Sentimenduak
Happy	Japi	Pozik
Excited	Eksaitid	Emozionatuta
Good	Gud	Ongi
Nervous	Nervus	Urduri
Thoughtful	Zotful	Pentsakor
Optimistic	Optimistik	Positibo
Tired	Taired	Nekatuta
Jealous	Yelus	Jeloskor
Guilty	Gilti	Errudun
Frightened	Fraitend	Beldurtuta
Sad	Sad	Triste
Negative	Negatif	Ezkor
Angry	Angri	Haserre

Expressions

How do you feel today?	Jau du yu fil tudei?	Nola sentitzen zara gaur?
Cheer up!	Txir ap!	Alaitu!
Express your feelings!	Expres yor filins!	Adierazi zure sentimenduak!
I feel like fish out of water.	Ai fil laik fix aut of uota.	Lekuz kanpo sentitzen naiz.
We were over the moon!	Ui uer ouva de mun!	Oso emozionatuta geunden!

Bidaltzailea
Artzapeko lantaldea

TXÚTXUPEKA

Getarian izen horrekin ezagutzen dugun jolasa —*txútxupeka jolastu*— hiztegietan izen askorekin ageri da. Ezagunenak **ezkutaketa** eta **gordeketa** hitzak dira; baina beste hauek ere erabiltzen dira han edo hemen: *gorde-gordeka*, *kuku-gordeka*, *kukumikuka*, *kiriketan*, *kukuka*, *kubika*... Gaztelaniaz *al escondite*.
Txútxupeka hitza —lehenengo silaba azentuarekin ahoskatzen da Getarian— ez da ageri inongo hiztegitan. Ematen du "itsu-itsupeka" formaren (*itsu-itsuka*, *gallinita ciega*) aldaera dela.
Jolas horretan, bestalde, zigortuak norbait ikusten duenean eta haren izena kantatzen duenean, beste hitz bitxi bat ere erabiltzen da Getarian: "Urlia **tximilikorte**" esaten du. Urlia (edo dena delako parte-hartzaile hori) jolasetik kanpo geratzen da orduan. Edota zigortuari aurrea hartuz norbera eta beste guztiak "libratzeko" ere erabiltzen da esapide hori; libratzaileak, orduan, bere izenarekin esaten du *tximilikorte* hitza.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* -era ezagutzen dituzun hitzak.

Idazlea
AMAIA IRAZABAL

ZATIAK

Gertatzen da nahigabe lekuetan

zerbait uztea

eta denborarekin zerbait hori

zurea zela ahaztea.

Zurekin zenuena, orain, lekuarena da.

Zu zarenaren zatiak

ahaztuta uzten dituzu hortik zehar.

Lekuak zutaz oroitu daitezen

zatien biltzean.

Edo zu lekuez,

zatiren bat falta duzulako begira.

Aldizkari guztiak helbide honetan:
issuu.com/artzape

26. ZENBAKIA
2004KO MARTXOA

BALEA GETARIAN Hildako balea San Antonen

HILTZERA ETORRITAKO BALEA KUMEA

Maiz gertatzen ez bada ere, aurten balea izan da gurean. 2004an ere hildako balea kume bat agertu zen San Anton mendi inguruan. Isidro Berasaluze eta emazte Enkarnak lehenago ikusi zuten, bizirik. Geldi-geldirik zegoela kontatu zuten, sokak hiru buelta ematen zizkiola gorputzari eta muturrean trabeska zeukala. Txalupan zihoazela bistaratu zuten bi zarauzterrek ere eta ontzira asko hurbiltzen zela zioten, "eskuekin ukitzeraino".

Irantzu Ezenarro

ERREPORTAJEA Urola Kostako Hitza

LEHEN HILABETEKO BALORAZIOA

Dagoeneko sustraituta dago Urola Kostako Hitza baina orduan hilabete besterik ez zuen proiektuak. Gari Berasaluze zen zuzendari eta hiruzpalau hilabetetan herrietan errotuta egongo zela uste zuen. "Eskualdea euskalduntzeko proiektua giltzarria" zela zioen eta eguneroko bizitza eta irakurtzeko ohiturak aldatuko zituenez, "ohorea" zela halako lan batean aritzea. Hilabete hartan jazotako hainbat pasarte ere kontatu zizkigun Berasaluzek.

Jon Illarramendi

BERRIKETAN Enrike Manterola

AGUAZILAREN ERRETIROA

Enrike Manterola aguazila erretiratu eta egun gutxira izan ginen berarekin berriketan. Ohitu gabe oraindik, gogoan zuen tailer batean lanean ari zela eskaini ziotela lanpostua. "Ez zen inor presentatzen ez barrendero ez aguazil lanetarako", zioen. 25 urteko ibilbidean une gozoak zein gaziak bizitakoa, urte batzuetan kiroldegian aritu zen, herriko zaintza egiten Ertzainak hasi zirenean. Gero itzuli zen aguazil postura eta aldaketa ugari bizi izan zituen urteen joanarekin.

Irantzu Ezenarro

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

Getaria
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

IÑAKI REQUEJO

Deabruak eskutik emanda

Nik uste handiusteak izanagatik ditugula Aste Santuak bezalako jaiak, ezin baitugu onartu naturaren zati txiki bezain iheskorrak garenik, Xabier Leteren kantuak dioen bezala "izarren hautsa".

Zer ote, Zigor, Iñakik gaur esan nahi duen hori? Urguilu eta harrotasunagatik jainkotiar egintza garen lelokeriak asmatzen ditiagu; bai, ezin baitiagu onartu loreen joan-etorriaren antzaren bat diagunik edo besterik gabe, atomoen kasualitate hutsa garenik.

Zer demontre! Honek ezin dik bide berdinetik jarraitu, zenbat istorio merke gizadiaren harrotasunaren izenean? Kapaz duk eliza teleskopio guztiak erre eta berriz ere esateko lurra zentroan dagoela, guztia inguruan jira-biraka dagoela.

Bai, urguilua izan duk Aste Santua edo Gabonen asmatzaile, santuz jositako egutegiarekin batera. Egun bakoitzak zertarako behar dik santuren baten izena? Egun guztietan santu berrien menean bizi gaituk eta: Zara, Apple, Amazon, Cristiano Ronaldo, Messi... Orain gutxi arte egutegiko santuen jarraitzaile sutsuak gintuan; orain aldiz, San Ignacio Azpeitira festetara edo Santa Marina Zautza ligatzera joateko bakarrik ezagutzen ditiagu.

Broma zantarra dirudien arren, egongo duk bateren bat santu berriak egutegian jartzea pentsatu duenik ere; nire esperoa beste bidetik zoak. Noiz iritsiko ote duk egutegian zenbakiak soilik ikusiko ditiagun eguna, edo besterik gabe, egutegiak kendu eta beharren arabera biziko garen eguna?

Zigor, pentsa dezakek burutik jota nagoela egutegirik gabeko munduan pentsatzen dudalako, baino ez ote duk gizabanakoaren askatasun gune interesgarri bat sortuko? Hausnartu ondorengoa: zerk egiten du igandea jai egun? Hara, gure egile ahalguztidunaren deskantsu eguna. Utz dezagun produktu bikain eta bakarra garen uste ximela eta eraiki dezagun pertsonen egutegi bat, teologia kristau edo merkantilistak alde batera utzita, zer deritzok?

Ez ahaztu: jainkozko irudiak aldakorrak eta heterogeneoak dituk, eta aldakorrak diren heinean kontrolpean izan behar ditiagu, alienaziorik nahi ezean. Ikusiko huen bezala, teologia kristauak eta merkantilistak eskua eman eta batera lan egiten duten unean, kontsumismo basatia sortzen duk Aste Santutan, zeinean jai Jesusi ezker diagun eta jai egiteko modua teologia merkantilistak gidatzen diken.

Hau nahastea, amak utzi zidak gauean lagunekin kalera irteten baino aitak nola jokatu eta zer egin esan zidak. Zertarako nahi diat kalera irten orduan? Teologia madarikatuen kaiola dirudi...

ZIGOR SAIZAR

Maiatzak 7, San... Gure Esku!

Iñaki, nola izango gaituk gai santurik gabeko egutegi bat egiteko gure kabuz erabakitzeko gai ez garenean? Euskal sindikatuek langileen egutegiak egiterakoan, urriaren 12ari eta abenduaren 6ari bakarrik erreparatzen diotenean "euskal egutegia" egiteko? Hori bai, urriaren 12a asteartean edo ostegunean bada... *biba la guardia zibil!* Zubirik gabe ez gaitunk geratuko ba!

Hartu ezak langileen egutegi bat eta ikusiko dek nola jai egun eta oporraldi ia guztiak besteek —Elizak edo Estatu espainolak— erabakitakoak diren: urtarrilaren 6a, Errege eguna, Jesusen gurtze eguna; urtarrilaren 17a, San Anton; martxoaren 19a, San Jose, Jesusen aita; Aste Santuak, Jesusen heriotza eta berpiztea; uztailaren 25a, Santiago Apostol —*y cierra España*, komikietan Jabatok esango zukeen bezala—; uztailaren 31a, San Inazio; abuzturen 6a, San Salbador; abuztuaren 15a, Amabirjinan eguna, Jesusen ama; irailak 9, Arantzazuko amabirjina; urriaren 12a, Hispanitatean eguna; azaroaren 1a, Santu Guztien eguna; abenduren 6a, Konstituzio espainolaren eguna; abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna —haurdunaldiaren iraupena edo oso luzea edo oso motza... miraria—; abenduaren 25a, Jesusen jaiotza.

Eta betikoek —tradizionalistek— esango ditek, "hori beti hala izan dek eta orain aldatzen hasiko al gaituk ba?" Eta BETI hori noiztik? Zeren uste diat beti hori errazegi edo dena justifikatzeko erabiltzen den suntsipen handiko arma eraginkorra dela. Beti noiztik? 1936ko uztailaren 18tik? Zeren Errepublika garaian jai egun hauek ospatzen al hituen? Eta Errege Katolikoek Espainia handi eta bakarra egin aurretik? Beti, beti, betiko... Elizan askotan entzundako *hit*a... Azken gizaldietan oso lotuta egon baitituk Estatu espainola eta Eliza.

Beraz, Iñaki, gazteok, zuek, bai zuek, noiz ostia espabilatu behar dezue eta benetako euskal egutegi euskaldun eta laikoa egiten hasi? Horretarako, ordea, bizkar gainean dizkiagun zama guztiak kendu beharra zagok eta behingoz konturatu Elizak eta Estatu espainolak betikotzat sinestarazi dizkigun dogmak hitzez hitz betetzen ari garela, menpekotasun erabatekoan, isil-isilik.

Eta nola ez, gure kabuz erabakitzen hastea nahi badiagu, hor diagu lehenengo egun santu bikaina: maiatzaren 7a! Gure Eskuko bozka kutxara botako diagun boto-paper bakoitza gure kabuz erabakitzeko askatasun marrua izango dek: gure egutegiko egunak, gure etorkizuneko oporrak, gure gero guztia...

Gazteok, lo al tzabete?

ERABAKITZERA GOAZ

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

Maiatzaren 7ko galdeketa

HERRIARI HITZA EMATERA DOAZ

Hilabeteak dira zenbait herritarrek Brankan erabakitzeko eskubidea gauzatzeko taldea sortu zutela. Adin, giro eta sentsibilitate politiko nahiz kultural ezberdinetako herritarrak batu eta gogor egin dute lan getariarrek euskal estatuaren inguruan duten iritzia plazaratu dezaten. Orain, maiatzaren 7ko galdeketaren azken xehetasunekin ari dira lanean.

"Gure herrian galdeketa egin zenean, hartutako lan guztiaren ondoren %26k bozkatu zuela ikustean negar egin nuen. Denborarekin ohartu nintzen galdeketa haiek geroko guztiaren ernamuin izan zirela". Portzentaien garrantzia alboratu eta galdeketa egitearen garrantzia azpimarratu zuen iragan martxoaren 7an Marc Sanjaume politologoak Ulpiano Etxean. Bere herrian, Cardedeun (Bartzelona, Herrialde Katalanak) galdeketa antolatzen ordu asko igaro zituen Sanjaumek, eta orduko porrot sentsazioa bestelako begiekin dakusa egun: bere esanetan, aurtengo urterako Kataluniako gobernuak hitzemandako erreferendumaren aintzindari izan ziren herritarrek abiarazitako galdeketa haiek. Oraingoan ere parte du Sanjaumek, Generalitateko autogobernu lan taldeko kidea den heinean.

Ilazki Arrillagak entzun zituen Sanjaumeren hitzak, eta bere ustez ere, "goitik behera ez bada egiten, herri txikietatik hasita gorantz gauzatu behar dugu erabakitzeko eskubide demokratikoa". Hala, lantegi horretan dihardute iragan udazkenetik Getariako Brankan taldekoek —kide da Arrillaga—, helburu bakarrarekin: datorren maiatzaren 7an herritarrek euskal estatuari buruz duten iritzia emateko aukera izatea. Aise gainditu zuten horretarako lehen langa —erroldako %10aren sinadura—, 600 sinaduratik gora bilduta, eta horrekin batera hasi ziren prestaketak: "Talde ezberdinetan banatuta gaude. Batzuk komunikazio arloan dabiltza, besteak arlo juridikoan... bakoitzak bere lana egiten du, eta bileretan egiten dugu bateratze lana", zehaztu du Uxoa Irigoienek. Hasieran bi astean behin elkartzen baziren ere, data gerturatu ahala astean birritan elkartzen dira orain.

Izan ere, bi ekimen izango ditu maiatzaren 7ak, Ainara Ostolazaren arabera. Lehena, galdeketa bera, ohiko hauteskunde prozesu gisa joango da, Brankanek antolatuta. Aldiz, Gure Esku Dagoren bidez antolatu dute bigarren ekimena, festa kutsua izango duena, eta herria girotzea izango du helburu: "Bi ekintzak paraleloki antolatu dira, lotura izango dute, baina ez dira gauza bera", dio Ostolazak.

Ohiko hauteskunde formatuan

Hauteskunde egunen ohiko eskema jarraituko du erreferendumak, eta hauteslekuak goizeko 9etatik iluntzeko 20ak arte egongo dira zabalik. Beste herrietan egin bezala, lehen bozka emateko aukera herriko adindu eta gazte banak izango dute; Getarian, José Ramon Aranberria Matxote Gernika gudarosteko kidea eta Libe Goenaga bertsolaria izango dira. Eurak izango dira bi hautes-mahaiak estreinatuko dituztenak, zeinetan herritarrak egongo diren, bolondres. Atzerriko begirale lanak egingo dituztenak ere lotuta dituzte dagoeneko: lehena, Nicolas Bernier-Deslauriers quebectarra eta Leandro Bello euskal-argentinarra. Lehena Gasteizen bizi da egun, eta frantseseko irakaslea da. Bello, aldiz, Bilbon bizi den ostalaria da, eta Buenos Aireseko Euskaltzaleak euskal etxeko kidea. Brankaneko kideen esanetan, "bi hauen hautaketa nahiko sinbolikoa da. Diasporan ere sortu dituzte erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak, baina ezin dutenez bozkatu, eurei keinu bat egin asmoz hautatu ditugu". Eskualde

Aurretiazko bozkaren lehen eguna, Meagan. /Arg.: Brankan.

Marc Sanjaume eta Jaume Lopezen hitzaldia baietzaren aldeko formakuntzan.

EH Bilduk duela egun gutxi ateratako argazki erraldoia./Arg.: EH Bildu

mailako begiralea, aldiz, Alan Sandry Swanseako (Gales) unibertsitate irakaslea izango da. Aditua da Europako herrialdeetako identitate ezberdinetan, baita honelako prozesuetan ere. Berari laguntzen, jada galdeketa egina duten Azpeitiko Hitzartu taldeko lagun bat arituko da herriz herri.

Hauteskunde protokoloa zehatz-mehatz betetzen dela bermatzeko eta haren inguruko zalantzak argitzeko, aldiz, herriko hiru legelari eta irakasle batu ditu Brankanek: Mikel Haranburu, Nagore Alberdi eta Joseba Iribar. Apirilaren 28an aurkeztu zituzten hirurak, Ulpiano Etxean Anjel Oiarbidek emandako hitzaldia probestuz. Hain justu, protokolo horrek zehazten du bozka emateko beharrezkoa dela Getarian erroldatuta egotea. Hori frogatzeko bi modu daude. Batetik, Espainiako NANean Getaria jartzea bizilekutzat; gainontzeko kasuetan udaletxean eskatutako errolda agiria aurkeztu beharko da —baita EHNArekin bozkatzeko ere—. Izan ere, lege kontuak tarteko Brankanek ez du erroldarik izango: "Alderantzizko bidea egingo dugu. Bozka ematerakoan sortuko da errolda, eta sistema informatiko baten bidez ekidingo da jendeak bi leku ezberdinetan bozka ematea", azaldu du Arrillagak. Horrez gain, Brankanetik zehaztu dute ondo doala aurretiazko bozkaren martxa, eta azpimarratu dute "maiatzaren 7an bozkatu ezingo dutenek kontzienteki etortzen ari direla".

Baietzaren aldeko kanpaina

Urrian sartzearekin batera hasi zuten Gazte Asanbladak eta Eskubide Sozialen Kartak galdeketan baietzaren hautua egiteko formakuntza dinamika bat. Hamaika hitzaldiren bitartez, euskal estatu batek herritarren ongizatean izango dituen abantailak aztertu dituzte, baita orain artean mundu mailan izandako burujabetza prozesuak ere —hor kokatzen da Sanjaumeren hitzaldia—. Galdeketaren eguna gerturatu ahala, pauso bat aurrerago egin eta baiezko botoa eskatu dute zuzenean. Horretarako, kartelak sortu dituzte bi taldeek, eta euskal estatu batek gazteengan lituzkeen ondorio positiboak zehaztu ditu Asanbladak, sare sozialetako mezu eta bideo bidez. Bere aldetik, EH Bilduk ere baiezko bozkaren alde egin du, apirilaren 21ean argazki erraldoia aterata. Horrez gain, maiatzaren 2rako Maddalen Iriarte legebiltzarkidearen hitzaldia iragarri du.

Aurtengoa ez zen, ziurrenik, Korrika herritik pasatzeko ordurik erosoena. Goizaldeko tarte horretan ere norbaiti egokitu behar ordea, eta getariarrek ez zuten hutsik egin. Arratsaldean herria zeharkatu zuten eskolako haurrek, eta goizaldera euskararen lekukoari bidea egiten lagundu zioten herrian nahiz inguruko bideetan helduagoek. Ohetik jaiki berri edo Korrika Batzordeak antolatutako ekitaldietatik etorri, irrifarra izan zen nagusi.



evacuación en el «Habana»

TRO MIL NIÑOS HAN SALIDO
Y ARA FRANCIA Y RUSIA

da impidió que la labor de tras

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

Memoria historikoa

ZAURIA ONDO ITXI DADIN

Espainiako Guda Zibilaren garaian gertatutakoak bilduz, herriko memoria historikoa lantzeko zenbait egitasmo jarri dituzte abian Getarian. Horietako batzuk azaldu ditu gai horiek lantzen ari den Floren Iribar zinegotziak.

"Behar diren zauriak itxi eta gure historiako pasarte beltz bat alboratu ez dezagun". Asmo horiekin abiarazi ditu Udalak herriko memoria historikoa lantzeko egitasmoak, Floren Iribar zinegotziaren arabera. Erakunde ezberdinekin elkar hartuta abiarazi dituzte egitasmoak, eta haiek zertan diren azaldu dio Iribarrek ARTZAPEri. Alabaina, zehaztu du "ikerketa fasean gaudenez, oraindik izen eta kasu gehiago azalduko direla". Behin lanketa hori egin ostean urraketa guztiak bilduko dituen liburu bat argitaratu eta sufrimendua pairatu zutenei aitortza egin nahi diete.

"Orain artean, Udal gisa ez da ezer egin, eta badago memoria historikoa lantzeko beharra", adierazi du Iribarrek. Egin beharreko zerbait da Udalaren ustez, eta jakin arren apur bat berandu dabiltzala, "sukalde bazterreko ezkututik plazara atera behar dira horrelakoak". Alta, ez da lan erraza; Franco hil zela 40 urte baino gehiago igaro diren arren, oraindik ere zailtasun asko aurkitzen dituztela azpimarratu du EH Bilduko zinegotziak: "Aranzadikoek kontatzen dute artxibo militarretan- eta ikerketak egiteko oztopoak jarri ohi dituztela". Horrez gain, kontuan hartu behar da Espainiako Guda Zibila lehen lerroan bizi izan zuten gehienak dagoeneko hil direla; testigantza gehienak sufrikarioa pairatutakoen seme-alaben ahotik jaso dituzte, ondoko egitasmoei bide emanez:

Hilerriko indusketak

Iazko ekainean eman zuen Aranzadi Zientzia Elkarteak Getariako hilerrian egindako indusketen berri. Jakin bazekiten 1936an gutxienez hiru lagun fusilatu zituztela Getariako hilerrian, eta Udalak jasota zituen gaiaren inguruko testigantza batzuk. Tartean, Enrique Manterola eta Juanito Eizagirrerenak. Orain artean, baina, bi kokalekuetan ez da esperotako gorpuzkinik aurkitu.

Esaterako, mahaiaren gainean dago Teodoro Mitxelena oriotarraren kasua. Justuki, Manterolaren amaren lehengusua zen falangistek Getariako herrian fusilatutako Mitxelena. Garai hartako hobiratzaileak baieztatu zuen Mitxelenaren heriotza, ehorzteko garaian ezagutu egin baitzuen. Uste denez,

Mitxelenarekin batera Zarauztik ekarri eta hil zituzten Antonio Usabiaga zarauztarra eta Donostian bizi zen Gregorio Diez nafarra ere.

Manterolaren testigantzetan oinarritutako indusketetan ez da hauen gorpuzkinik aurkitu. Haatik, indusketetan aurkitu zuten beste gorpu bat, eta Aranzadikoen arabera, gerra garaikoa izan liteke: "Paco Etxeberriaren taldeak zehaztu duenez, eusko gudari bat izan daiteke, Euzko Gudarosteak erabiltzen zuen gerrikoa baitu, besteak beste", azaldu du Floren Iribarrek. Egun, gorpuzkin horren DNA arrastoak jasota daude.

Juanito Eizagirrerenak dira beste testigantzetako batzuk. Gerra garaian mutikoa zen Eizagirre, eta ordu asko ematen zituen familiak hilerri ondoan zituen soroetan. Hala, odol putzuak eta bala zorroak ikusitakoa da, eta bere esanetan, hilerriko goikaldean ehorzten zituzten fusilatuak. Kontua da egun panteoi handiak daudela inguru horretan, eta indusketa lanak egitea ezinezkoa dela, ustez gorpuzkinak dauden lur geruza dagoeneko oso hondoratua dagoelako.

Habana ontzia.

Emakumeak eta haurrak, kanporatuak.

1937an herritik kanporatuak

Memoria historikoa lantzeko abian duten beste ikerketa lerroa 1937ko kanporaketena da. Urte hartako otsailaren 13an faxistek hamarnaka lagun bota zituzten Getariatik, emakumeak eta haurrak gehienak. Egungo datuen arabera, hamabost emakume eta hogeita bi haur izan ziren kanporatuak, baina ixteke dago ikerketa: "Joseba Esnal zumaiarraren *Ama, nora doaz?* liburuan datozen hasierako datuek hamalau emakume eta hamar ume zirela esan arren, hariari tira ahala goraka doa kopurua", azaldu du Iribarrek. Lantegi horretan Eneko Sanz ikerlaria ari da, besteak beste.

Hain justu, Esnalen liburuak zerikusi handia du egun abian diren egitasmoekin. Iribarren esanetan, EAJk duela bi urte egindako erakusketa mugarri izan zen kasu hauen nondik norakoak ezartzerako orduan: "Hasiera batean Bizkaiko kostaldean barrena egin zuten, baina denborarekin baliteke beste bideak hartu izana". Horren adibide, duela egun gutxi 80. urteurrena bete duen Gernikako bonbardaketaren testigantza lehen pertsonan eman izana zenbait getariarrek. Izan ere, Getariatik kanporatutako hogeita bi haur horietatik hamairu bizi dira egun.

Horiexek dira iragan martxoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren omenaldia jaso zuten ia 800 haurretako batzuk. Markel Olano ahaldun nagusiak harrera egin zien foru jauregian, aste batzuk lehenago Zumaian egin bezala. Iribarrek zehaztu duenez, auzoko herrian 250 lagundik gora kanporatu zituzten, errepresio handia jasanda.

Matxitxakoko borrokaldia

Iragan martxoaren 5ean 80 urte bete ziren Matxitxakoko borrokalditik. Udalak, borroka hartan izandako getariar andana kontutan, zerbait egin behar zuela erabaki eta Matxitxako elkartearekin jarri zen harremanetan. Orain artean, urtero martxoko lehen igandean lurmuturraren aurrean egiten den omenaldia antolatzen zuen elkarteak, baina aurten Eusko Jaurlaritzaren Gogora Institutuak hartu du bere gain. Gogorarekin harremanetan jartzeaz gain, borrokaldian parte hartu zutenen familiakoekin ere elkartu ziren: "Bagenekien haietako zenbait klandestinitate garaitik hasita omenaldira joaten zirela; Manterola eta De la Hoz familiak, esaterako". Hala, autobus bat antolatzea erabaki zuten haiekin eta orain artean sekula joan ez baina horretarako borondatea aurkeztu zutenekin. Guztira, 40 lagun inguru joan ziren Getariatik, Udaleko bi alderdietako kideak ere tartean zirelarik.

Testigantzen bidez informazio gehiago jasotzen ari dira, horrek zenbait ikerketa lerro ireki ditzake.

Ertz askoko kontakizuna

Espainiako Guda Zibilak frontetik kanpo ere sufrikario andana sortu zuen herrian, eta horiek lantzeko konpromisoa hartu du Udalak Aranzadi, Gogora eta beste zenbait eragilerekin. Horretarako, testigantzen beharra ezinbestekoa dela irizten du Iribarrek, eta asmo horrekin abiarazi zuten Memoriaren Bulegoa iazko azaroan. Olatz Retegi Aranzadi elkarteko ikerlariak Alhondigan izandako bulegoan hamaika testigantza jaso zituen, eta haien guztiak lantzen ari dira orain. Tartean dira fronte kontuak: "Hasiera batean, Getarian 46 gudari izan zirela uste zen, baina ez ziren beste herrietan jaio eta hemen bizi zirenak kontuan hartzen. Esaterako, Mutrikun jaiotako sei getariarren kasua, hemen bizi eta gerrara hemendik joanak". Izan ere, Getaria izan zen Euzko Gudontzidiari —Eusko Jaurlaritzaren itsas armada— boluntario gehien batu zitzaizkion herria, Bermeoren ostean. Bestalde, azken asteetan lehorrean borrokatu zuten zenbait lagunen informazioa bildu dute, Jagi-jagi eta Lenago II bataloietan aritu zirenak. Alabaina, frontetik kanpo ere izan zen sufrikariorik: "Udaletxeko lana galdu zutenak, frankistek errepresaliatutako lagunak...denetarik egon zen gerra garaian, eta baita gerra ostean ere", dio Iribarrek. Hala, oraindik gehiago jakiteko esperantzan dira udal ordezkariak; testigantzen bidez informazio eta datu gehiago jasotzen ari dira, eta horrek zenbait ikerketa lerro ireki ditzake, batez ere, Ferrol eta Salamanca bezalako kanpo artxiboetan.

Hauek guztiak liburu batean bildu eta eskubide urraketak aitortu, argitu eta lantzea da Udalaren asmoa. Alde horretatik, dagoeneko zenbait herritarrek eskerrak eman dizkietela azaldu du zinegotziak, eta uste du EAJren erakusketak, Iñaki Egañaren hitzaldiak, Aranzadirekin egindako akordioak eta Matxitxakoko urteurrenak interesa piztu dutela. Behin lanak amaitutakoan gerraren ondorioak pairatu zituztenei omenaldia egin beharko zaiela irizten du Iribarrek, eta ohartarazi du ez dela alboratzeko gaia: "Herri honen historiaren zati da hori guztia".

2017ko MAIATZA

2 Asteartea
Maddalen Iriarteren hitzaldia: *Bai euskal estatuari*
Ordua: *19:00*
Lekua: *plaza*
Antolatzailea: *EH Bildu*

5 Ostirala
Antxua eguna
- *12:00etan, ekitaldia eta Zilarrezko Antxuaren aipamena Cristobal Balenciaga Museoan.*
- *18:30ean, Gure Txeruren emanaldia trikitilari eta Gazte Alaiak txistulari taldearekin, frontoian.*
- *19:00etatik 21:00etara, antxua dastaketa frontoian.*

6 Larunbata
- *11:00etan, Antxua Eguneko I. Bela Estropada*
- *16:30ean, Txiki Chef tailerrak plazan.*
- *18:30ean, Urrezko aizkora frontoian.*
- *20:30ean, Donostiako Orfeoiaren kontzertua parrokian. Sarrerak turismo bulegoan eskura daitezke doan; bi pertsonako.*

7 Igandea
Arrantzale Eguna
- *09:00etan, diana musika bandarekin.*
- *11:00etan, arrantzaleen meza, Getariako abesbatzak kantatuta. Karmengo Amabirjinaren prozesioa eta Itsas-bedeinkapena egingo dira Artzapen.*
- *Ondoren, arrantzale zaharrei omenaldia eta hamaiketakoa.*
- *11:30ean, Gipuzkoako Trainerillen Ligako estropada: VII. Antxua Eguna bandera.*
- *13:00etan, musika bandaren kontzertua elizan.*

Herri galdeketa
Ordua: *09:00etatik 20:00etara*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Brankan*
Getarian erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek "Nahi al duzu izan Euskal Estatu Burujabe bateko herritarra?" galderari erantzun ahal izango diete. Gainera, ekintzak egongo dira egunean zehar.

11 Osteguna
Udalekuei eta Txiki Txokoari buruzko bilera irekia
Ordua: *18:30*
Lekua: *udalbatzar aretoa*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

13 Larunbata
Perlak eta Falta taldeen kontzertuak
Ordua: *22:30*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Gazte Asanblada*

13-15 Lr-Al
Meaga auzoko jaiak
Programazioa dugunean Facebooken jarriko dugu ikusgai.

15-17 Al-Az
Elan Euskadiren XXIV. jardunaldiak
Ordua: *19:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*

15-19 Al-Ol
Udalekuetan eta Txiki Txokoan izena emateko epea
Ez da epez kanpoko izen-ematerik onartuko. Urritzakoak eskolan izango dira lehenago azalpenak ematen.

19 Ostirala
Daiki eta Killerkume taldeen kontzertua
Ordua: *22:30*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Gazte Asanblada*

23 Asteartea
***Euskal estatugintza feminista* hitzaldia**
Ordua: *19:00*
Lekua: *alondegia*
Antolatzailea: *Gazte Asanblada eta Eskubide Sozialen Karta*
Jule Goikoetxeak eskainiko du.

25 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *liburutegia*
Luis Garderen "Ehiztariaren isilaldia" lana landuko dute.

Laburbira. Film laburren saioa
Antolatzailea: *Udala*

26 Ostirala
Euskal Astea
- *18:30ean, Gure Txeru dantza taldeko haurrak.*
- *22:00etan, Gure Txeruko helduen emanaldia.*

27 Larunbata
Euskal Jaia
Ordua: *egun osoan zehar*
Txistulariak, trikitilariak, azoka, dantzak, irrintzi eta trikiti lehiaketa, erromeria...

30 Asteartea
Cat Boyden bideokonferentzia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Eskubide Sozialen Karta eta Gazte Asanblada*

Cristobal Balenciaga Museoa

7 Igandea
***Ikatza eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari* erakusketaren amaiera**
Iazko urritik zabalik dagoen erakusketa ikusteko azken aukera izango da egunotan.

9-25 Ar-Og
Itxiera partziala
Epe tarte horren museoko erakusketa aretoak partzialki itxita egongo dira eta maiatzaren 26an, berriz, publikoari guztiz itxita, aldi baterako erakusketa berriaren prestaketa lanak direla eta. Partzialki itxita dagoen egunetan sarrera doan izango da. Informazio gehiago eskuratzeko info@cristobalbalenciagamuseoa.com helbide elektronikora idatzi edo 943 008 840 telefonora idatz daiteke.

21 Igandea
Lautik bolumenera
Ordua: *11:00-13:30*
7 eta 14 urte bitarteko umeak dituzten familientzako jarduera. Txikiek 5 euro eta helduek 7 ordaindu beharko dituzte. Ele bitan izango da. Ikasleek gorputzera egokitzen diren hiru dimentsioko piezak lortuko dituzte. Informazio gehiago eskuratzeko 943 008 840 telefonora deitu edo didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatzi behar da.

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

BIDALI ZURE DATUAK:

@ artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€